

ERMUKO EUSKERARAKO

ORTOGRAFIA ARAUAK

Fernando Aranberri Odriozola

1999ko otsaila

AURKIBIDIA

SARRERA.....	3
1) Ortografia finkatziaren helburuak.....	3
2) Zer eredu hartu?.....	3
3) Zelan egin?.....	4
4) Erdibidia lortzeko orduan agertu diran eztabaidak.....	4
5) Gure hizkerak izan bihar ditxuen ezaugarriak:.....	5
6) Proposatutako konponbidia.....	5
LEXIKUA ETA BESTE.....	6
DEKLINABIDIA.....	7
S/Z; TS/TZ.....	7
Y / I.....	7
D/R.....	7
NTS / NS.....	7
I + A > IXA.....	8
JARRITXUKO OSTAZU / JARRAITXUKOSTAZU.....	8
ETA / TA / TXA / DA.....	8
HASIERAKO /R/ -> ERRE.....	8
H.....	8
GALERAK.....	8
BUSTIDURA.....	9
KONTSONANTE ELKARKETA.....	9

SARRERA

Lehenengo eta behin, Ermuko euskera lantzen dihardugun artian, bertoko azpi-euskalkixaz idazteko ohixura eta premiñiak haunditxuz juan dira azken urtiotan. Hori dala-ta, eta sortu diran arazoei aurre egitxeko, bidezkoa ezezik premiaskua be deritxot ortografia arauak finkatziari, danok bardin idatzi deigun.

1) Ortografia finkatziaren helburuak

- Ermuko euskera indartzia.
- Ermuko euskera literariua sortzia.
- Idazten dogunon artian batasuna lortzia. Baitxa idazle bakoitzak bere buruakin koherente izatia ta beti bardin idatzia.
- Komunikabidiak bertako euskera erabilliaz herrixan eragiñ haundixaua lortzia, eta halaber, bertako euskeraren balixuaz eta premiñiaz jabetzia.
- Euskaldun zaharren euskara irakurtzeko zaletasuna piztia. Gizartian gertatzen diran albistiak euskeraz jasotzeko aukera izatia, euskera batuandako daken mesfidantzia apurtzeko, ta pixkanaka pixkanaka euskeraz irakur deixen.
- Euskaldun barrixei bidiak emotia bertako euskera ezagutzeko. Prentsa idatziak irakurleguak herriko euskera ikasteko bidia ematen dau.¹

2) Zer eredu hartu?

Argi dago Ermuko euskara eredutzat hartu bihar dogula. Baiña, orain arte ez da ageri Ermuko euskeraz idatzitako inolako dokumenturik. Horrexegaitxik, ez dakagu hizkuntza literarixorik nun

¹Kontutan hartu bihar da ziurraski 5 urte barru Ermuan euskaldunbarrixak zaharrak baiño gehixau izango dirala.

begiratzerik. Gu Ermuko euskaraz idazten daben lehendabizikuak izango gara eta gure erdua gaur egungo ahozko euskera izango da.

Hala ta guztiz be, gauza batzuetan bai bizkaerari bai euskera batuari jaramon egingo dotzegu².

3) Zelan egin?

Benetan oso gaitza izan leike, hala be, ortografia arauak finkatzia baiño lehen denok kontutan hartzekuak esango ditxugu.

- a) Hiztunen arteko erdibidia lortu bihar da, zaharrendako zein gaziendako eredu ona izan deixan.
- b) Orain arte, Euskaltzaindiak, batuak, bizkaierak eta herri-hizkerak (herri-aldizkarixak) hartu daben bidia kontutan hartu.
- c) Ahal dan neurrixan, honek faktorenek kontutan hartuz erdibidia lortuz.

4) Erdibidia lortzeko orduan agertu diran eztabaidak

- Fonetika: Transkripzio fonetika berehala baztertu arren, gero zenbait gauzetan fonetika beti agertu jaku³. Fonetikak dakan arazorik haundiña poliformismua da, eta dakan gauzarik interesgarrixena ahozkeran ondo mantentzeko bidia dala.
- Fonologia: Zenbait gauzetan, ortografikoki muzin egin arren⁴ ahozkeran konpontzeko balixo leikigu.

² Euskera bakarra dogu, herri bakoitzak baditxu bere ezaugarriak eta bere harri-bitxiak, guk häreri utsiko dotzagu, geure ekarpena euskerari emoteko. Era berian euskera batuak bere gauza onak ditxu, guk harek hartuko ditxugu gure euskera aberasteko eta indartzeko.

³ Bustidurak (tt/tx, in...)

⁴ s/z, ts/tz, galera...

Eztabaidarik haundiña berba elkartiekin dogu. Beste herrixetan, batzuk tradizio literarixuari kasu eitzen dotselako, ta beste batzuk, barriz, ahozko euskerari. Guk arazo hau konpontzeko bidia gero proposatuko dogu.

- Literarixua: Ermukua ez dago, orduan gaurko euskera oinarritzat hartuz, bizkaieratik ta euskera batutik soilik zenbait ekarpen ortografiko hartuko doguz kontutan. Gainontzekua gure hizkeraren ezaugarritzat joko dogulako.

5) Gure hizkerak izan bihar ditzuen ezaugarriak:

- Ulergarrixa: Euskaldun zaharrek etxekotzat hartu ta berrixentzako ulergarri ta ikasteko baliagarri izan deiken.
- Bateratzaillia: Bai hizkerak batzen ditzuana, bai hiztunak batzen ditzuana.
- Ahal danik ta koherenteena: Arauak arrazoiez argituz.
- Ahozkerak: Puntu larritzat jotzen da. Denek zaindu aldekoen dira, baiña bidiak ez ditzu inok ipintzen.⁵

6) Proposatutako konponbidia

Bi erregristro sortzia:

- a) Lehenenguan, *testu oso* bat idazten dogunian erabiliko genduke. Holakueta saiatuko giñake ortografia batuari jaramon egiten (Ermuko ezaugarriak beti kontutan hartuta), idazkera hau osatuagua izango litzateke, ta honen bidez euskaldun barrixak erraz ulertuko leukie. Ta, zaharrak, barriz, euskara batuari hurbilduko litzakioz⁶.

⁵Beste herrixetan, esaterako $z+j > tx$, ez dabe erabiltzen estetikoki oso txarto gelditzen dalako, baiña *ezpada* jartzen dabe. Beraz, ahozkeraren arazo larri hau konpondu barik.

⁶Honek zera esan gura dau: Errespetozko euskera erabili nahi danian forma osua erabiliko dogu; Eta, *elkarrizketa* bada, gure galderetan forma osua erabiliko dogu eta erantzunetan kontrazua.

- b) Bigarrenian, oster, gehixau hurbilduko giñake ahozko euskerara, horretan kontsonante multzoen elkarketak, bustidurak, galerak... ta abar agertuko lirake. Erregistro hau bakarrik erabiliko genduke *elkarritzeta* bat dagoenian (*erantzunetan*) ta gakoen arteketan. Honen bidez euskaldunbarrixak euki leikieen ahozkeraz arazuek konponduko gendukez⁷.

LEXIKUA ETA BESTE⁸

Berba bat Ermukua dan ala ez jakiteko, edota Ermukotzat hartzeko hurrengo materialari begiratu bihar dotzagu:

ARANBERRI, Fernando (1996): *Ermua eta Eitzako Euskara*. Ermuko Udala. Gertu⁹.

ETXEBARRIA, Toribio (1986): *Flexiones verbales y lexicon del euskera dialectal de Eibar*. Euskaltzaindia. Bilbo¹⁰.

TALDIA (ARGOITIA, J.A.; AZKARATE, N.; GEZURAGA, X. (1995): *Eibarko euskeraren esakerak eta bestelako berezitasun batzuk*. Eibarko Udala. Gertu¹¹.

MITXELENA (amaitu gabekua): *Hiztegia*¹².

- Hillabetiak batuaz emongo ditzugu

⁷Erregistro hau fonologiatik oso hurbil dago. *Elkarritzeta* erantzunetan ahozko euskaria ahal danik eta gehixen gordetzen saiatuko gara.

⁸Ortografia baiño askoz garrantzitsua da gramatikia, hizkerak berez duen gramatika. Horri ezinbesteko garrantzia emongo dotzagu. Herrixak duen sormen gaitasun hori (lexiko, deklinabidia, josker, aditza...) da funtzekuen. Ortografia, barriz, une konkretu batian apropos hartutako erabaki baten ondorixua da (Filologoa, idazliena, teknikarixena... baina ez kaleko bihargiñaren erabakixia).

⁹Lan honetan aditza, josker, deklinabidia, bokalismo, bokalismua ta ikuspegi orokorra lortuko gendukez.

¹⁰Lexikua lantzeko erabiliko genduke.

¹¹Esaerak.

¹²Hiztegi honen zeregina guk erabiltzen ditzugun erdal berbak baztertzia da, euskera garbixua egin nahian.

DEKLINABIDIA

- *Asoziatibuari* dagokixonez “-KIN” deklinabide atxizkixa erabiliko genduke.
- *Genitibuari* dagokixonez hurrengo billakaera ikusten dogu:
“mutillAREN > mutillAEN > mutillAN”
Guk azkenaren alde jotzen dogu.
- *Destinatibuari* dagokixonez (-TZAKO eta -ANDO) forma bi erabiltzen badira be guk destinatibo zaharran alde joko dogu, hau da, -ANDAKO. Euskerazko testu zaharretan agertzen dan forma hau gorde eta landu bihar dogula pentsatzen dogulako. Gure ekarpena euskarari emoten ahalegindu bihar gara. Hala be, testu bat “*fluidua*” egin nahi bada bixak erabili leikez.

S/Z; TS/TZ

Batuan moduan.

Y / I

Hau batez be aditzian agertzen jaku, “I” -ren ade joko dogu.
Esaterako: doia, daroia....

D/R

“D”-ren alde *testu osua* bada: kantidadia, moduan...

“R”-alde *elkarriketa* bada: moruan, ero...

NTS / NS

Esaterako prentsa idatziko dogu.

I + A > IXA

Berba amaieran, esaterako: mendixa, herrixa...

Hitz barruan be: Santixauak, barixakua¹³...

JARRITXUKO OSTAZU / JARRAITXUKOSTAZU.

Banatziaren alde.

ETA / TA / TXA / DA.

Hasieran eta puntu baten ostian ETA.

“I” bokalaren atzian TXA. Esaterako “ibilli txa ibilli”¹⁴.

“N” atzian DA

HASIERAKO /R/ -> ERRE

Errefugixua, erradixua, errekaia, Errekalde...

H

Herrixak ez nahastatzeko erabiliko dogu. Ez dogu erabiliko erakuslia lotuta badago¹⁵. Esaterako, *Honek mutillonek*, hori mutillori, politxori...¹⁶

GALERAK

Bokal arteko kontsonantia bere balixo galtzen dau (G / R / T) kasuan kasuko.

Esaterako: nao, dia, kobrau, pentsau, dakiu, dakau, berandau, gehixau, mutilloi (Plural hurbilla-datibua)...¹⁷

¹³Egun konkretua bada ez “*Bariku Santua*”.

¹⁴Kontuz: erosi txa, nahiz ta ala nahitxa...”

¹⁵Baitxa kontsonante elkarketan be, hau da, zeozer galdu danian. Esaterako “biou, bida, biozu, bieben...”

¹⁶Erakuslia oso luzia gelditzen bada (esaterako bi silaba baiño gehixau baditxu) banatuta idatziko genduke. Adb: Honeana mutil honeana.

BUSTIDURA¹⁸

Guk /ill/iñ/itx/ bustidurak idatziko doguz¹⁹.

Zelan idatzi?

- "Testuan": ill, iñ eta itx.
- "Elkarrizketan": ll, ñ eta itx (bokala desagertzen da)

Nun idatzi?

- Hitz erdixan beti. (baiña, mutilla, maitxia...)
- Hitz amaieran: iñ (oiñ, arraiñ, haiñ...) eta itx (dakitx...) idatziko dogu. /ill/ (hil...) barriz ez²⁰.
- Kontsonante aurrian: Bakarrik iñ (egiñda, oraiño...), bestelakoetan il (bildur...) eta it.

KONTSONANTE ELKARKETA

Herri askotan banatziaren alde badaoz be, nik uste *elkarrizketako erantzunetan* baturik idatzi bihar dala, bestela, euskaldunbarrixen artian desbideraketa haundixak egon leikez.

Hala be, egixa esan estetikoki oso txarto eta nahastia dala emoten dau, hori dala ta, hurrengo kontsonante elkarketarako bakarrik proposatzen dogu:

<i>Testu osuan ez</i>		<i>Elkarrizketan bai</i>
"Ez jata	>	Etxata"
"Ez badator	>	Ezpadator"
"Juan bihar nas	>	Juan binaz"
"Bihar dot	>	Biot, biozu, biozue, bidabe..."
"Honek be	>	Honek pe"

¹⁷Ni aditzian, behintzat, mantentzian alde nago (*testu osuan*), gero elkarrizketako erantzunetan bai galtziaren alde. Baina, orain arteko joera kontestu guztietan galtziaren alde agertu danez...

¹⁸Bustiduretan DD baztertzen dogu, baita TT be Ermuan honek hotsok galduta daozelako (Salbuespena: Iturri), hala ta guztiz be Mallabirako mantentzia proposatzen dogu.

¹⁹Ermuko ezaugarria dalako.

²⁰Ahozker auzun mantentzeko arrazoia estetikua izan leike (il kasuan).

Oharra: Ortografia arau hauek kontutan hartzen badugu be, ondiok ziur nago zalantza haundixak eukiko ditzuzuela, batez be idatzi ahala horrek zalantzok agertuko jatzuezela, horrexegaitxik arazo-zerrenda bat egitxia proposatzen dotsuet, gero gure hizkeria gehixau landu ostian arazo guztiei aurre egiteko. Baitxa praktikan nik emondako honek arauok zelan ikusi ditzuzuen be ezagutzia gustatuko litzakida, balixogarrixa dan, hutsunerik dakan, desadostasunik badozuen... ta abar.